

2025/05/22an EGINDAKO OHIKO OSOKO  
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE  
LA CORPORACIÓN. Día 22/05/2025.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese  
Edorta Barandiaran García  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Irati Iglesias Pozo  
Mikel Luengo Gabarain  
Dorleta Sologaitoa Aguiriano  
Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sajeras  
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

**EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2025eko maiatzaren 22an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 22 de mayo de 2025, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Puri Regidor Varela.

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2025eko apirilaren 30ean egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2025eko maiatzaren 15era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berriaz eman da 8. kreditu aldaketa espedientea onartzeko Alkate erabakiaren berri.

## **3.- DIRULAGUNTZEN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOAREN 1/2025 ALDAKETA.**

Udalbatzarrak, 2023ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Dirulaguntzen 2024-2027 Plan Estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, udaleko hainbat arlok komenigarria ikusi dute planaren 2025-eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea LERRO ESTRATEGIKOETAKO dirulaguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko.

Proposamenak ikusita, eta Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak; Kultura, Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzorde informatzaileak eta Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak emandako diktamenen arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Deialdirik ez egitea 7. LERRO ESTRATEGIKOKO “TOKIKO MERKATARITZAN ERABILTZEKO ESKORIATZA BIZIRIK KONTSUMO-BONUEN KOFINANTZIAZIOA” E) programarako eta espedientea tramitatzea programa hori finantzatzeko kreditua TOKIKO MERKATARITZAN ERABILTZEKO ESKORIATZA BIZIRIK KONTSUMO-BONUEN JAULKIPENA D) programa finantzatzeko erabiltzeko.

**BIGARRENA.-** Ondorengo programetarako finantzazioa handitzea ondoren ere esango diren kopuruetan:

1.- *KULTUR DINAMIZAZIOA 1. LERRO ESTRATEGIKOKO E) PROGRAMA “ASTE ZAPATISTA”- 4.000 eurotan handitzea.*

2.- *KULTUR DINAMIZAZIOA 1. LERRO ESTRATEGIKOKO I) PROGRAMA “SAN PEDRO/INTXAURTXUETAREN DINAMIZAZIOA”- 10.000 eurotan handitzea.*

3.- *SUSTAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALA 7. LERRO ESTRATEGIKOKO D) PROGRAMA “TOKIKO MERKATARITZAN ERABILTZEKO ESKORIATZA BIZIRIK KONTSUMO-BONUEN JAULKIPENA”-14.000 eurotan handitzea.*

4.- *KIROLAREN SUSTAPENA 2. LERRO ESTRATEGIKOKO B) PROGRAMA “Eskoriatza Kirol Elkarte”- 26.000 eurotan handitzea.*

**BIGARRENA :** EUSKARA 5. LERRO ESTRATEGIKOAN ondorengo dirulaguntza programa berria gehitzea:

2025/05/22  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

#### **E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Euskara eta Kulturartekotasuna.**

HARTZAILEAK: 6 – 12 urte bitarteko haur eskoriatzarrak, gizarteratze soziokulturalean trebatzeko beharra dutenak.

HELBURUA: gizarteratze soziokulturalean trebatzeko beharra duten haurrei behar horri erantzuteko bitartekoak eskaintzea aisialdian.

LORTU GURA DENA: gizarteratze soziokulturalean trebatzeko beharra duten haurrek euskarazko aisialdirako sarbidearen bitartez euskararen ezagutza areagotzea eta haien gizarteratzea erraztea. Herrian kulturarteko bizikidetzak eraikitzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Norgehiagoka.

KOSTUEN AURREIKUSPENA: 6.000,00 €

FINANTZIAZIOA: 0400.480.335.40.01 2025

\* Boto azalpena: Josu Ezkurdiak dio bere taldeak 2025eko aurrekontuaren aurka bozkatu izanaren arrazoietakoa bat izan zela bertan aurreikusitako dirulaguntza batzuk ez zitzaizkiela nahikoak iruditzen. Gabezia hori orain zuzendu egiten da proposamen honekin eta, beraz, aldeko botoa ematen dute.

#### **4.- UDAL LOKALA ALDAIPE ELKARTEARI PREKARIOAN LAGATZEA.**

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratuak udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** ALDAIPE ELKARTEAri doan eta prekarioan uztea ondorengo udal higiezin erabilera:

- a) Intxaurtxueta 9 eraikineko etxabeen dagoen lokala, elkarteko jarduerak administratiborako erabili dezan.
- b) Kiroldetxe 1. garajea, materiala gordetzeko.

**Bigarrena.-** Lagapena 5 urterako egiten da, honako baldintza hauekin:

**I. 1.- Lokala administrazio izaerako jardueretarako erabiliko da bakarrik, eta garajea, materiala gordetzeko.**

2.- Onartutako erabilera edota aurretik baimendutako erabilera emango dio erabiltzaileak lokalari eta garajeari. Behar bezala zaintzeko betebeharra du, egindako kalteen erantzule izanik; eta jasotako egoera berean itzuli beharko du kontratua bukatzen denean. .

3.- Udalak eskubidea izango du lagatutako higiezin ordez beste batzuk lagatzeko interes publikoko arrazoiengatik higiezin horiek berreskuratu beharko balitu.

4.- Erabiltzaileak konpromisoa hartzen du lagatutako higiezinak behar bezala eta arduraz zaintzeko. Udalaren kontura izango dira argindar gastuak, baina, higiezin garbitasuna zein

izan daitezkeen gainerako gastuak (telefonoa, interneta...) ALDAIPE ELKARTEAREN kontura izango dira.

5.- Prekarioan lagatakoa bertan behera gelditu daiteke honako arrazoi hauengatik:

- Higiezinak gaizki erabiltzeagatik.
- Epea amaitzeagatik.
- Erabiltzaileak uko egiteagatik.
- Lagapena justifikatu duten arrazoi sozio-ekonomikoak aldatu direlako.
- Udalaren eskariz lagatzea baliogabetzeagatik; noiznahi egin daitekeena interes sozialeko arrazoiengatik baldin bada.
- Ebazpen judizialarengatik.

6.- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direnez, ALDAIPE ELKARTEAK, Eskoriatzan euskararen normalizazioan urrats bat gehiago emateko eta guztion hizkuntza eskubideak errespetatzeko, kanpora begirako komunikazioak (kartelak, inprimakiak, etab.) bi hizkuntza ofizialetan egiteko konpromisoa hartzen du. ALDAIPE ELKARTEAK Udalaren Euskara Zerbitzuaren laguntza izango du argitaratu beharreko edozein testu itzultzeko edo zuzentzeko.

7.- ALDAIPE ELKARTEA zuzenbide pribatuko eta irabazi asmorik gabeko taldea da, eta inolaz ere ez dago Udalaren menpe, eta Udalak ez ditu zuzentzen lokalean egin beharreko ekintzak, eta ez du horrelakorik bere esku utzi eta ez dio ere inolako onespenerik edo baiezkorik eman; bakar bakarrik lokala lagatzen du, eta beraz, ez du bere gain hartzen ez zuzenean ez modu subsidiarioan edozein motako ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik lokalean gerta daitezkeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.

8.- Hitzarmenak 5 urteko iraupena izango du, 2025eko ekainaren 1etik 2030eko maiatzaren 31ra arte. Hitzarmena amaitutzat emango da alde bietako batek idatziz salatutakoan. Aipatutako salaketa hitzarmen honetako klausularen bat ez betetzearen aurkeztu daiteke.

## **5.- ESNARGI KOOP. ENERGIA KOMUNITATEAN BAZKIDE LAGUNTZAILE IZATEKO ERABAKIA ETA EGIN BEHARREKO KONTRATUA ONARTZEA.**

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen azken xedapenetako hirugarrenaren 6. apartatuak, energia elektrikoa iturri berriztagarrietatik, kogeneraziotik eta hondakinetatik abiatuta ekoizteko araubide ekonomiko primatuko jardueraren araubide juridiko eta ekonomiko berriari buruzkoak, honako hau xedatzen du:

*"Gobernuari ahalmena ematen zaio energia-komunitateen titulartasuneko energia sortzeko instalazio guztiek ordainsari-tratamendu berezia jaso dezaten, sortze-merkatuan nahitaez irauteko ezinbesteko tresna baitira. Betiere, energia-komunitatetzat hartuta irabazi-asmorik gabeko erakundeak, pertsona fisikoak, enpresa txiki eta ertainak akziodun edo kide nagusiak pertsona fisikoak, tokiko edo probintziako erakundeak dituztenak edo beste enpresa txiki eta ertain batzuk."*

2025/05/22  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

Horrenbestez, Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa definitzen ditu energia-komunitateak, eta berariaz aurreikusten du toki-erakundeak erakunde horien parte izan daitezkeela.

Kontuan hartuta Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 24.2 artikulua xedatzen duela euskal administrazio publikoek sustatuko dutela, ahal den neurrian, proiektatutako energia-kontsumo berriztagarriak lortzeko behar diren energia berriztagarriak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan instalatzea, energia berriztagarrien hedapen endogenoari lotutako aukera sozioekonomikoak aprobetxatzeko eta egungo kanpoko energia-mendetasuna murrizteko, hau da, subiranotasun energetikoa handitzeko.

Horren ildotik, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 24.6 artikulua adierazten du euskal administrazio publikoek energia-komunitateen eta energia berriztagarrien komunitateen garapena sustatuko dutela, sorkuntza kontsumo-puntuetara hurbiltzeko eta energia-sistemaren demokratizazio handiagoa lortzeko, arreta berezia jarritz eremu ahulenetan eta herritarrek teknologia berriztagarrien proiektuetan parte har dezatela sustatzeko.

Kontuan hartuta, halaber, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 24.7 artikulua aurreikusten duela euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, energia elektriko eta termiko berriztagarria biltegitratzeko sistemak garatzea eta ezartzea bultzatuko dutela, baita autokontsumoa eta ibilgailu elektrikoaren erabilera ere.

Eskoriatzan ESNARGI, KOOP.S. energia-komunitatea eratu berri da, eta bere helburu soziala energia-komunitate baten berezko jarduerak garatzea da, energia berriztagarrien erabilera sustatzeari buruzko Europako zuzentarauetan ezarritako printzipioen arabera.

ESNARGI, KOOP.S. sozietatearen estatutuen arabera, kooperatibaren bazkide laguntzaile izan daitezke, zuzenean kooperatiba-jardueran parte hartu gabe, sozietatearen helburua lortzen lagundu dezaketen eta gainerako bazkideekin interes bera dutela egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

Eskoriatzako Udala bat dator ESNARGI, KOOP.S.-ren helburu sozialekin eta helburu horiek garatzen lagundu nahi du.

Aurrez esandako guztiarengatik, Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

1.- ESNARGI KOOP.S. energia-komunitatean bazkide laguntzaile gisa PARTE HARTZEA eta, horretarako, ESNARGI KOOP. S.ko Kontseilu Errektoreari ESKATZEA energia-komunitatean onar dezala.

2.- Batetik, ESNARGI KOOP.S.kin formalizatu beharreko kontratua ONARTZEA, kontratuaren xedea izanik Udalak kooperatiban bazkide laguntzaile gisa parte hartzeko bete behar dituen baldintzak arautzea. Eta, bestetik, Alkateari AHALMENA EMATEA agiri hori formaliza dezan Udalaren izenean eta ordekaritzan.

3.- 1.000 euroko gastua ONARTZEA, indarrean dagoen aurrekontuko 0100.471.425.00.01 partidaren kargura. Gastu hori bazkide laguntzaile izateko Udalak egin beharreko ekarpenari

**2025/05/22**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

dagokio. Ordainketa AGINTZEA, bi alderdiek 2. puntuan aipatutako kontratua formalizatu ondoren egingo dena.

4.- Kontseilu Errektorean Udalaren ordezkari izateko zinegotzi hau izendatzea: Mikel Aingeru Luengo Gabarain.

## **6.- UDAL LOKALA ESNARGI KOOPERATIBARI PREKARIOAN LAGATZEA.**

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Esnargi Eskoriatzako Energia Berriztagarrien Komunitateari Intxaurtxueta z/g helbidean dagoen Ibarraundi museoko aldi baterako erakusketa gela prekarioan eta doan lagatzea, bere ohiko funtzionamendu eta kudeaketarako behar diren bilerak egiteko. Lagapen hori ezin izango da inoiz ere ulertu aldeetariko edozeinen aldeko ekonomia- edo errentamendu- eskubidea denik.

**Bigarrena.-** Lokala honako baldintza hauekin lagatzen da:

- 1.- Lokala 2025eko abenduaren 31ra arte lagatzen da, eta luzatu ahal izango da 5 urte igaro arte. (2029-12-31ra arte).
- 2.- Esnargi Eskoriatzako Energia Berriztagarrien Komunitateak Intxaurtxueta z/g helbidean dagoen Ibarraundi museoko aldi baterako erakusketa gela erabili ahal izango du, bakar bakarrik bere ohiko funtzionamendu eta kudeaketarako beharrezkoak diren bilerak egiteko.
- 3.- Hitzarmen hau sinatzen den hurrengo hilabeteko lehen egunetik baimena ematen zaio Esnargi Koop.i Ibarraundi museoko aldi baterako erakusketa gela doan eta prekarioan erabiltzeko ondoren adierazten den egun eta orduetan:

IBARRAUNDIKO ALDI BATERAKO ERAKUSKETA GELA	
EGUNA	ORDUTEGIA
Astlehena	18:00-20:00
Osteguna	18:00-20:00

Egutegi horretatik kanpo Esnargi Koop.ek Ibarraundi museoko aldi baterako erakusketa gela beharko balu ezohiko jardueraren baterako, eskaria Ingurumen Garapeneko zerbitzuari egin beharko dio, behar besteko denborarekin beste erabilera batzuekin koordinatu ahal izateko. Esnargi Koop. izango da instalazioaren arduraduna.

Gizarte-interes edo erabilera publikoko arrazoiak behar moduan egiaztatzen baditu, Ibarraundi museoko aldi baterako erakusketa gela erabili ahal izango du Udalak egutegian Esnargi Koop.entzat gordetako egunetan. Erabilera hori aldi baterako Udalari itzultzea

**2025/05/22**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

justifikatzen duen arrazoiak horrela ahalbidetzen badu, Udalak hilabete aurretik emango dio erabilera horren berri Esnargi Koop.i.

4.- Esnargi Koop.k lokala egoera onean zaintzeko betebeharra du, eta erabilera ez egoki bategatik sortutako konponketak euren gain izango dira eta jasotako egoera berean itzuli beharko du lokala kontratua amaitutakoan.

5.- Esnargi Koop.k erantzukizun zibileko poliza izan beharko du bere jarduerarengatik sor daitezkeen kalteak estaltzeko Poliza horrek, gutxienez, 300.000 €-ko estaldura izan beharko du.

Polizaren kopia bat entregatu beharko du 10 eguneko epean, hitzarmen hau formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita.

6.- Eraikinean edozein obra edo jarduera egiteko, Udalaren berariazko baimena beharko da. Obrak edo jarduketak ondasun higiezinaren onurarako izango dira eta ez da inolako kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

7.- Esnargi Koop.k ezin izango die hirugarrenei utzi lagapen-hitzarmen honen xede diren ondasun eta instalazioen erabilera.

8.- Interes publikoko arrazoiengatik Udalak lokala berreskuratu nahi izanez gero, zilegitasuna du lagatako lokala beste bategatik aldatzeko.

9.- Udalak bere gain hartuko ditu kostu hauek: argindarra, zaborra eta ura.

10.- Alde biek berariaz aitortzen diote elkarri Esnargi Koop., Eskoriatzako Energia Komunitatea, zuzenbide pribatuko eta irabazi asmorik gabeko taldea dela, eta inolaz ere ez dagoela Udalaren menpe, azken horrek ez dituela zuzentzen lokalean egin beharreko ekintzak, eta ez duela bere esku utzi eta ez diola ere inolako onespentik edo baiezkorik eman; bakar bakarrik lokala lagatzen duela, eta beraz, ez duela bere gain hartzen ez zuzenean ez modu subsidiarioan edozein motatako ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik lokalean gerta daitezkeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.

11.- Lagapen prekario hau hori iraungitzat joko da Udalak, aurrez eta hilabeteko aurrerapenarekin elkarteari horrela eskatuta, lokala erreklamatutakoan edo elkarteak lokala itzulitakoan. Era berean, kontratua automatikoki iraungitzeko arrazoa izango da ondasun hori hemen aipatu ez den beste erabilera baterako erabiltzea.

12.- Esnargi Koop.eko, Eskoriatzako Energia Komunitateko, lehendakariak, elkartearen izenean eta ordezkartzan, konpromisoa hartzen du Udal lokalak lagatzeko eta erabiltzeko Udal Erregelamenduko 4. tituluan aurreikusitako erabilera eta funtzionamendu arauak betetzeko. .

13.- Hitzarmenak izaera administratiboa du eta bertan aurreikusi gabekoetarako, Udal lokalak lagatzeko eta erabiltzeko Udal erregelamenduan zehazki ezarritakoa eta Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan ezarritakoa hartuko dira kontuan.

14.- Hitzarmena interpretatzerakoan zalantzarik balego, zalantzak Udalbatzarrak erabakiko ditu. Udalbatzarrak hartutako erabakiak administrazio bidea agortuko du.

## **7.- ITELAZPIREKIN ERAKUNDEEN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA IRRATI-KOMUNIKAZIOARI BURUZ. UDAL TITULARTASUNeko ONDASUNEN ERABILERA PRIBATIBORAKO ADMINISTRAZIO EMAKIDA ESLEITZEA.**

Udal hau udal jabari publikoko ondasuntzat hartzen diren ondasun hauen jabea da: KULTUR ETXEA eta ARANBURUZABALAKO ARGITERIA PUBLIKOKO 2.19 FAROLA.

Udalbatzarrak 2020ko apirilaren 30ean hartutako erabakiz, Udal honek Gipuzkoako Ur Kontsortzioari emana dio, 2020ko urriaren 1etik aurrerako ondorioekin, Eskoriatzako udalerriko URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA.

Ur Partzuergoak oraingo kontagailuen ordez irakurketa digitaleko kontagailu batzuk jarriko ditu, eta irakurketa hori egiteko datuak transmititzeko sare bat behar du, une honetan Eskoriatzan ez dagoena.

ITELAZPI SA, telekomunikazio sarea kudeatzen duen euskal sozietate publikoa, goian aipatutako udal ondasunetan komunikazioetarako kanpoko router edo Gateway bat instalatzeko moduan dago. Gailu horien bidez ur kontagailuen seinalea jaso eta datu horiek Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren zentralera deribatu ahal izango liriteke bertan tratatzeko.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera Udalari berari zuzenean dagokion eskumen baten kudeaketa erraztu nahi da.

Horiek horrela, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 89. artikuluari dagokionez Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa kontuan hartuta, eta, eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorritik, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** ITELAZPI SArekin formalizatzea akta honen 1. eranskineko hitzarmena. Hitzarmen horren helburua da ITELAZPIren eta UDALAREN arteko lankidetzaproiektua arautuko duten baldintza partikularrak ezartzea, ITELAZPIren titulartasuneko komunikazio-sareak partekatuz IoT zerbitzuak emateko.

**BIGARRENA.-** Jabari publikoko emakida ITELAZPI SARI esleitzea, KULTUR ETXEKO teilatua eta Aranburuzabalako argiteriako 2.19 FAROLA kanpoko router bat edo komunikazioetarako Gateway bat instalatzeko erabil ditzan, gailu horien bidez ur-kontagailuen seinalea jaso eta datu horiek Gipuzkoako Ur Kontsortzioko zentralera bideratzeko bertan tratatu ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Emakidak 15 urteko iraupena izango du eta zuzeneko esleipen prozedura bidez egiten da, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 137.4 artikuluan aurreikusitako arrazoia gertatzen delako, eta 2. ERANSKIN gisa erantsi den BAIMEN agirian agertzen diren baldintzen menpe gelditzen da.

**LAUGARRENA.-** Alkateari ahalmena ematea aurreko puntuetan aipatutako hitzarmena eta baimen-agiria sinatzeko.

## **8.- 9/2025. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

2025/05/22  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 9/2025. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen partida	II. Azalpena	Kredituak		
		Egungoa k	Aldaketa k	Behin betikoak
1 0400.422.337.20.01 2025	APORTAZIOA: EKKO PROGRAMA	12.359,38	7.415,62	19.775,00
1 0400.481.334.50.01 2025	DIRU LAGUNTZA:ASTE ZAPATISTA	2.500,00	1.500,00	4.000,00
1 0400.481.334.53.01 2025	DIRU LAGUNTZA:SPIBE	8.000,00	2.000,00	10.000,00
1 0300.481.341.20.01 2025	DIRU LAGUNTZA:ESKORIA.KIROL ELKARTE	16.000,00	10.000,00	26.000,00
1 0400.480.335.40.01 2025	DIRU LAGUNTZA:EUSKARA ETA KULTURARTEKOTA	0,00	6.000,00	6.000,00
1 0100.601.134.00.01 2025	IGOGAILUA S.PEDRO	15.000,00	215.000,00	230.000,00
1 0100.210.153.20.01 2025	MANTENIMENDUA:BIDE PUBLIKOEN ZOL	40.000,00	25.000,00	65.000,00
1 0200.226.920.00.04 2025	GASTU JURIDIKOAK	2.000,00	15.000,00	17.000,00

2025/05/22  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

1 0200.220.920.00.03 2025	MATERIAL INFORMATIKO EZ INBENTARIAGARIA	9.374,20	2.500,00	11.874,20
1 0200.162.920.00.01 2025	LANGILENTZAKO PRESTAKUNTZA	3.400,00	4.000,00	7.400,00
<b>GUZTIRA</b>		108.633,5 8	288.415,6 2	397.049,2 0

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2025	DIRUZAINZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETAR	288.415,62
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>288.415,62</b>

**KODEEN AZALPENA**

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina.
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

**Bigarrena.-** 2025eko aurrekontuko dirulaguntza izendunen eranskinean egindako aldaketa hasiera batean onartzea, honela:

Gastuen partida	III. Azalpena	Kredituak		
		Egunoa k	Aldaketa k	Behin betikoak
1 0400.422.337.20.01 2025	APORTAZIOA: EKKO PROGRAMA	12.359,38	7.415,62	19.775,00
1 0400.481.334.50.01 2025	DIRU LAGUNTZA:ASTE ZAPATISTA	2.500,00	1.500,00	4.000,00

2025/05/22  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

1 0400.481.334.53.01 2025	DIRU LAGUNTZA:SPIBE	8.000,00	2.000,00	10.000,00
1 0300.481.341.20.01 2025	DIRU LAGUNTZA:ESKORIA.KIROL ELKARTE	16.000,00	10.000,00	26.000,00
1 0400.480.335.40.01 2025	DIRU LAGUNTZA:EUSKARA ETA KULTURARTEKOTA	0,00	6.000,00	6.000,00

**Hirugarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost eguneko epean, nahi duenak erreklamazioak jar ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

### **9.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratura egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko tramitatutako espedientearen berri eman da.

Hori horrela, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta EH BILDUKO 7 zinegotziek alde bozkatuta, eta EAJ/PNVko bertaratutako 3 zinegotziek aurka, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboiei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

- **Preskripzioagatik** kobratzeke dauden eskubideen baja: 4.196,90 €.

<b>2025/01/01etik 2025/03/31ra BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK</b>							
<b>IFZ</b>	<b>KONTZEPTUA</b>	<b>URTEA</b>	<b>LIKIDAZIOA</b>	<b>KUOTA</b>	<b>ERREKARGOA</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>ZERGATIA</b>
B43687375	JARDUERA ENPR.	2020	30A0301322305	527,22	105,44	632,66	4G- BAJ.PRESCR.GEA
B75187377	JARDUERA ENPR.	2020	30A048512230G	211,02	42,2	253,22	4G- BAJ.PRESCR.GEA
B75097030	JARDUERA ENPR.	2020	30A041940730E	2759,19	551,83	3.311,02	4G- BAJ.PRESCR.GEA
<b>GUZTIRA</b>				<b>3.497,43</b>	<b>699,47</b>	<b>4.196,90</b>	

2025/05/22  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

- **Beste arrazoi batzuentatik kobratzeke dauden eskubideen baja:** 192,26 €

IFK	KONTZEPTUA	URTEA	ZENBATEKOA	ZERGATIA
B20038923	002-2024-02-2053 Hondakinak (2. seihilekoa)	2024	192,26	Jarduera baja 2024/06/30tik
<b>GUZTIRA</b>			<b>192,26</b>	

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiaren batzuentatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

**10.-- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2025eko lehen hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**11.- LANPOSTU ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN 2025. URTEKO BIGARREN ALDAKETA. LANPOSTU BERRIARI EUSKARAZKO HIZKUNTZ ESKAKIZUNA IZENDATZEA.**

2025erako proposaturako organigramaren aurreikuspenak betez, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak apirilaren 15ean egindako bilkuran erabaki bazuen ere Udalbatzarrari "kulturako laguntzaile" plaza berri bat sortzeko proposatzea eta Udal honen 2025eko LPZa

2025/05/22  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

zentzu horretan aldatzea, erabaki hori bertan behera geratu zen apirilaren 30eko Osoko Bilkuran, lanpostuak ez zuelako aurrekontu zuzkidurarik

Maiatzaren 8ko Alkate erabakiz, lanpostuak aurrekontu zuzkidura izateko behar den kreditua esleitu da.

Jakina da aldaketa-proposamena aldez aurretik negoziatu behar zela langileen ordezkariekin, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 34. eta 37. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz (EPOE).

Aldaketa proposamenak udal aurrekontuarekin batera onartutako plantilla organikoa aldatzea dakar, eta beraz, udal aurrekontua onartzeko egin beharreko tramite berak egin behar dira horretarako ere, horrela eskatzen baitu Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuko 126. artikulua.

Plantilla onartzea eta, ondorioz, baita bertan egindako aldaketak ere, Udalbatzarrari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.2.i artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskumen hori ezin da eskuordetu.

Horiek horrela, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena aztertuta, eta EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta, eta EAJ/PNVko bertaratutako 3 zinegotziek aurka, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren BIGARREN aldaketa hasiera batean onartzea ondoren esango den moduan:

Kulturako laguntzaile plaza bat sortzea: C taldekoa, C1 azpitaldekoa, administrazio orokorreko eskalakoa eta administrazio-azpieskalakoa.

— *Izena:* Kulturako laguntzailea.

*Taldea:* C1.

*Lanpostu-mailako osagarria:* 17.

*Urteko berariazko osagarria:* 650 puntu.

*Lanaldia:* %100.

*Dedikazioa:* normala.

*Hizkuntz eskakizuna:* C1.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, 15 egun baliouduneko epean interesdunek espedientea aztertu eta Udalbatzarrari alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Epe hori igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez bada, aldaketa automatikoki behin betiko bihurtuko da.

**HIRUGARRENA.-** “KULTURAKO LAGUNTZAILEA” lanpostuari ondorengo derrigorrezko hizkuntz eskakizuna eta derrigorrezko data izendatzea:

**2025/05/22**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

Irakurmena eta idazmena	Entzumena eta mintzarena
C1	C1

Derrigortasun data: 2025-05-22

## **12.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:05ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ANEXO I  
**CONVENIO INTERINSTITUCIONAL ESPECÍFICO  
RED DE RADIOCOMUNICACIONES**

**ITELAZPI – AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**

..... sinadura elektronikoaren datan.

En ..... a la fecha de la firma electrónica.

**BILDU DIRENAK**

Alde batetik,

ESKORIATZako Udala, egoitza soziala Fernando Eskoriatza plazan duena, 1 zenbakian eta Identifikazio Fiskaleko Kodea P2003500B duena (hemendik aurrera “Udala”),

Egintza honetan, Edorta Zubizarreta Alegria jaunak, 16258137N NAN zenbakiarekin Eskoriatzako Udala ordezkatzeko du, honako hitzarmena sinatzeko ahaldun dela.

Eta beste Alde batetik,

ITELAZPI, SA, Bizkaian, Zamudioko Parke Teknologikoko 101. eraikuntzan helbideratua, hemendik aurrera “ITELAZPI”.

Egintza honetan Xabier Zubiaur Agirre jaunak ordezkatzeko du, Zuzendari Nagusi gisa, Bilboko Notaritzaren Elkargoko Andrés M<sup>a</sup> Urrutia Badiola Jaunaren aurrean, bi mila eta hogeitahiruko irailaren hamairu batean, bere alde emandako eskrituraren bidez egiaztatua.

Bi aldeak batera aipatzerakoan, “Aldeak” dei daitezke edo banakakoan “Aldea” gisa. Aldeek, borondate librez eta naturalez, Hitzarmen hau egilesteko behar adinako lege-ahalmena dutela adierazten dute eta halaxe aitortzen diote elkarri; eta hitza hartzeko egin dituzte ondoko

**REUNIDOS**

De una Parte,

ESKORIATZako Udala, con domicilio en Fernando Eskoriatza plaza 1 y CIF P2003500B (en adelante, “el AYUNTAMIENTO”),

Se halla representada en este acto por Edorta Zubizarreta Alegria, con DNI 16258137N, en nombre y representación de Eskoriatzako Udala, con poderes para suscribir el presente Convenio,

Y de otra Parte,

ITELAZPI, S.A., domiciliada en Parque Científico y Tecnológico de Bizkaia, edificio 101, de Zamudio (Bizkaia) (en adelante “ITELAZPI”).

Se halla representada en este acto por Don Xabier Zubiaur Agirre, en su calidad de Director General, con poder acreditado mediante escritura otorgada a su favor ante el Notario del Colegio de Bilbao D. Andrés M<sup>a</sup> Urrutia Badiola, con residencia en Bilbao, de fecha 13 de septiembre de 2023.

Ambas partes podrán denominarse conjuntamente como “las Partes” o individualmente como “la Parte”. Las Partes, de sus libres y espontáneas voluntades, manifiestan tener y se reconocen, mutua y recíprocamente, la capacidad legal necesaria para otorgar el presente Convenio, a cuyos efectos

**2025/05/22**  
**Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Ordinaria

## ADIERAZPENAK

Lehena.- Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL), aurrez, Esparru Hitzarmena izenpetu dute. Hitzarmen horrek ITELAZPIren azpiegituran oinarrituta irrati-komunikazio zerbitzuen plangintza, ezarpena, eragikera eta zerbitzu-ematea antolatzeko baldintzak arautzen ditu. Hitzarmen honek hainbat erakunderen arteko lankidetzaren agertokia zehazten du, azpiegitura teknologikoak partekatzeko, eta, hala badagokio, baita azpiegitura horiek erabiltzearen ondoriozko datuak ere, eskumen propioei arreta hobea emateko eta interes publiko orokorraren mesedetan.

Alderdiek adostu dute ezen, botere publiko diren aldetik, interes publikoa modu eztabaidaезinean eta erabatekoan islatzen duten eginkizunak garatuta, komenigarria dela balio handiagoa, eraginkortasun handiagoa eta kalitate-berme handiagoa emango dieten lankidetzak-formulak bilatzea erakunde-maila bakoitzaren berezko eskumenei, maila autonomikoa edo tokikoa izan.

Botere publikoen arteko lankidetzak horizontalerako formulak, lotura-harremanik ez dutenak, interes publikoko kontsiderazioek gidatu behar dituzte, hain zuzen ere, eta, gainera, parte hartzen duten botere guztiek parte hartu behar dute, alde baten berezko eskumenak betetzera mugatu gabe.

Eusko Jaurlaritzak, ITELAZPI bitarteko propioaren bidez, hainbat komunikazio-sare ditu, eta sare horien potentzialtasun teknologikoak hainbat erakunde-ordenari mesede egin diezaioke; beraz, lankidetzak-euskarria dira interes publiko konbergenteak asetzeko.

Erakunde-maila bakoitzaren berezko eskumenei kalterik egin gabe, sare horiek aukera ematen dute interes publiko propioak eta/edo komunak asetzeko. Horrela, sare horiek aukera ematen dute izaera desberdineko datuak transmititzeko, eta datu horien erabilgarritasuna administrazio baten eskumen-mugatik haratago joan daiteke, hainbat erakunde-mailatarako informazio interesgarria partekatzea

## MANIFIESTAN

Primero.- Que el Gobierno Vasco y la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL) han suscrito con anterioridad un Convenio Marco que regula las condiciones generales de planificación, implantación, operación y prestación de servicios de radiocomunicaciones soportados en la infraestructura de red de ITELAZPI. Este Convenio define el escenario de cooperación entre diferentes instituciones para la compartición de infraestructuras tecnológicas y, en su caso, los datos resultantes del uso de las mismas, en aras de una mejor atención de competencias propias y en beneficio del interés público general.

Las partes convienen en que, desarrollando, en su calidad de poderes públicos, aunque de distinta naturaleza y ámbito competencial, tareas en cuya materialización se refleja de manera indiscutible y plena el interés público, es conveniente buscar fórmulas de cooperación que aporten un mayor valor, una mayor eficiencia y una mayor garantía de calidad a las competencias propias de cada nivel institucional, sea éste autonómico o local.

Las fórmulas de cooperación horizontal entre distintos poderes públicos entre los que no hay una relación de vinculación, han de guiarse precisamente por consideraciones de interés público que, además, asistan a todos los poderes concurrentes, no limitadas a la satisfacción de las competencias propias de una parte.

El Gobierno Vasco, a través de su medio propio ITELAZPI, dispone de distintas redes de comunicaciones cuya potencialidad tecnológica puede beneficiar a distintos órdenes institucionales, de manera que constituyen un elemento soporte de cooperación para la satisfacción de intereses públicos convergentes.

Sin perjuicio de las competencias propias de cada nivel institucional, estas redes permiten satisfacer distintos intereses públicos propios y/o comunes. Así, estas redes permiten la transmisión de datos de distinta naturaleza cuya utilidad puede trascender más allá del límite competencial de una administración, facilitando la compartición de información de interés para distintos niveles

2025/05/22  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

erraztuz.

Azken batean, baliabide komun bat batera erabiltzea da, titularraren beharretatik haratago doana, eta lortutako emaitza beste administrazio publiko batzuek beren eskumen-beharretarako erabili ahal izatea ahalbidetzen duena. Hori guztia, sare ugari eskuratu eta gastu publiko justifikaezina egin beharrik gabe, eta hori, berez, interes publikoko elementua da, baliabide publikoen erabilera eraginkorra eskatzen baitu.

Hain zuzen ere, administrazio batek IoT sare bat edo beste edozein komunikazio-sare ustatuz lortutako datuak beste administrazio batentzat baliagarriak izan daitezke, eta, horretarako, lankidetzarako borondate konkurrentea baino ez da behar; izan ere, sare mota horiek, beren izaeragatik, ez dira Eusko Jaurlaritzaren zerbitzurako eksklusiboak, eta ez dute horien erabilera pribatiborik egin behar.

Formula kooperatibo horren bidez, komunikazio-sareen elkarrengarritasun-printzipioa erabiltzeaz gain, hau da, datuak erakunde-maila desberdinen artean partekatzeko gaitasuna erabiltzeaz gain, baliabide publikoen erabilera eraginkortasun-printzipio baten berri ere ematen da, haien gaitasunak optimizatuz eta loturarik gabeko sareak ugaritzea saihestuz, eta komunikazio publikoetan segurtasun-maila handiagoa izateko gaitasun handiagoak baliatzen dira.

Zalantzarik gabe, deskribatutako onura guztiak lankidetzara publikoko eskema batetik baino ezin dira lortu, eta, ondorioz, egindako gastuak partekatzeko formulen bidez antolatu behar da, kontraprestazio bidezko prezioen araubidetik urrun. Horrela, administrazio bakoitzak titularkidetasun-ikuspegia izango du, eta horrek ez du eragotzi behar sarearen ustiatzaileak kalitatezko konpromisoak hartzea kudeatutako zerbitzuetan.

**Bigarrena.-** UDALAK, bere eskumenak betez eta ematen dituen zerbitzu publikoak hobetzeko, IoT sare baten funtzionaltasunak behar ditu, hainbat gailu konektatzeko eta, horrela, tokiko zerbitzuen portaerari buruzko informazio zehatza eta puntuala

institucionales.

Se trata, en definitiva, de la utilización conjunta de un recurso común que va más allá de las necesidades de su titular y que permite que el resultado obtenido pueda ser utilizado por otras administraciones públicas para sus necesidades competenciales. Todo ello sin necesidad de dotarse de una multitud de redes e incurrir en un injustificable gasto público, lo cual, por sí solo, constituye un elemento de interés público en la medida en que predica un uso eficiente de los recursos públicos.

Efectivamente, los datos obtenidos mediante la explotación de una red IoT, o de cualquier otro tipo de red de comunicaciones, por una administración, pueden ser útiles para otra administración distinta, y para ello solo es precisa una voluntad concurrente de cooperación, ya que este tipo de redes, por su propia naturaleza no son ni deben ser exclusivas al servicio del Gobierno Vasco, ni tampoco el uso privativo de las mismas.

A través de esta fórmula cooperativa no solo se ejercita un principio de interoperabilidad de las redes de comunicaciones, es decir, la capacidad de compartir datos entre distintos niveles institucionales, también se da cuenta de un principio de eficiencia en el uso de los recursos públicos, optimizando sus capacidades y evitando la proliferación de redes inconexas, y también se aprovechan las mayores capacidades para contar con un nivel superior de seguridad en las comunicaciones públicas.

Es indudable que el conjunto de los beneficios descritos solo puede obtenerse desde un esquema de cooperación pública y, en consecuencia, se ha de articular mediante fórmulas de compartición de los gastos incurridos, lejos de un régimen de precios por contraprestación. De esta forma, cada administración tendrá una visión de cotitularidad, lo cual no debe impedir que el explotador de la red asuma compromisos de calidad en los servicios gestionados.

**Segundo.-** El AYUNTAMIENTO, en ejecución de sus competencias propias y para la mejora de los servicios públicos que viene prestando, precisa de las funcionalidades de una red IoT a fin de conectar diferentes dispositivos y obtener de esta

lortzeko.

Esparru-hitzarmen horretan esaten denez, Eusko Jaurlaritzak erabilera partekatua eskaintzen dien komunikazio-sareak ITELAZPIk berak kudeatzen ditu, eta hark gauzatzen ditu sare horien funtzionaltasunak errazteko jarduketak, eta hark ematen du zerbitzua.

**Hirugarrena.-** Esparru-hitzarmen horrek laugarren klausulan ezartzen duenez, aldeek eranskin bat sinatuko dute, hitzarmena izenekoa, ITELAZPIk eta dagokion erakundeak, kasu honetan ESKORIATZAko Udalak, lankidetzan aritzeko baldintza bereziak arautuko dituena..

**Laugarrena.-** Aurretik esandakoak kontuan izanda, Aldeek, borondate librez eta naturalez, Hitzarmen hau (hemendik aurrera, "HITZARMENA") ondorengo klausulen arabera xedatzea adostu dute

forma información puntual y precisa del comportamiento de distintos servicios locales.

En el citado Convenio Marco se dice que las redes de comunicaciones cuya utilización compartida se ofrece por parte del Gobierno Vasco están gestionadas por su medio propio ITELAZPI, que será quien materialice las actuaciones facilitadoras de las funcionalidades precisas de las citadas redes, y preste el servicio.

**Tercero.-** Que el citado Convenio Marco establece en su Cláusula Cuarta que las Partes suscribirán un Anexo, que denominaremos Convenio, Específico que regule las condiciones particulares de cooperación entre ITELAZPI y la entidad correspondiente, en este caso el Ayuntamiento de ESKORIATZA.

**Cuarto.-** Que, en virtud de las consideraciones precedentes, las Partes, de sus libres y espontáneas voluntades, han acordado otorgar el presente Convenio Específico (en adelante, "el CONVENIO") con sujeción a las siguientes

## KALUSULAK

### I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

#### 1.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea ITELAZPIren eta UDALAREN arteko lankidetzaren proiektua arautuko duten baldintza bereziak ezartzea da, haren titulartasuneko komunikazio-sareak partekatuz, IoT zerbitzuak emateko.

#### 2.- Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta lau urteko indarraldia izango du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan adierazitakoaren arabera.

## CLÁUSULAS

### CAPÍTULO I. NORMAS GENERALES

#### 1.- Objeto.

El objeto del presente CONVENIO es establecer las condiciones particulares por las que se regirá el proyecto de cooperación entre ITELAZPI y el AYUNTAMIENTO mediante la compartición de redes de comunicaciones de titularidad de aquella, con la finalidad de prestar servicios de IoT.

#### 2.- Plazo de vigencia.

El presente Convenio, que entrará en vigor el día de su firma, tendrá una duración de cuatro años, en virtud de lo establecido en el artículo 49 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

2025/05/22  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

Hitzarmena amaitzeko aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez ere beste lau urtez, edo azkentzea.

### 3.- ZERBITZUA aldatu edo zabaldu.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean bi alderdiek hitzarmenaren irismena aldatzea edo zabaltzea egokitzat jotzen badute, adostutako termino zehatzak jasoko dituen gehigarri zenbakidun bat formalizatu beharko dute.

### 4.- Zerbitzu-ematearen inguruko Jarraipena eta Komunikazioa

Alderdi bakoitzeko zerbitzu teknikoei dagokie zerbitzuen jarraipena eta ikuskapena egitea.

Alderdiek adosten dute, edozein zalantza, alderdi tekniko edo gorabehera argitzeko beste alderdiarekin harremanetan jarri behar izanez gero, jarraian adierazten diren harremanetarako pertsonen jakinarazi beharko zaiela:

- Udalaren aldetik:

Izena: Elizabeth Jauregui Beldarrain  
Kargua: Obra eta Zerbitzuetako teknikaria  
Telefonoa: 628774401  
Helbide elektronikoa:  
obraetazerbitzuak@eskoriata.eus  
Posta-helbidea: Fernando Eskoriata plaza  
1 20540 Eskoriata

- ITELAZPIren aldetik:

Izena: Ricardo Lizundia Lariz  
Kargua: Proiektu Berezien Arduraduna  
Telefonoa: 934032300  
Helbide elektronikoa:  
rlizundia@itelazpi.eus  
Posta-helbidea: Bizkaiko Teknologia  
Parkea, 101 Eraikina, 48170 Zamudio

### 5.- Erantzukizunak.

Bi Aldeetarikoa batek HITZARMEN honetan

En cualquier momento anterior a la finalización del plazo previsto para su finalización, los firmantes del Convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales, o su extinción.

### 3.- Modificaciones o ampliaciones del alcance.

Si durante la vigencia del presente CONVENIO ambas partes consideran oportuno modificar o ampliar el alcance del mismo, deberán formalizar una Addenda numerada que recoja los concretos términos acordados.

### 4.- Seguimiento y Comunicación sobre la prestación del servicio

Corresponderá a los servicios técnicos de cada Parte el seguimiento y supervisión de los servicios.

Las Partes acuerdan que, en el caso de que sea necesario contactar a la otra Parte para aclarar cualquier duda, aspecto técnico, o cualquier incidencia durante la ejecución del Convenio, se deberá comunicar con las personas de contacto que se indican a continuación:

- Por el AYUNTAMIENTO:

Nombre: Elizabeth Jauregui Beldarrain  
Cargo: Técnico de Obras y Servicios  
Teléfono: 628774401  
Correo electrónico:  
obraetazerbitzuakl@eskoriata.eus  
Dirección postal: Fernando eskoriata  
plaza 1 50540 Eskoriata

- Por ITELAZPI:

Nombre: Ricardo Lizundia Lariz  
Cargo: Responsable de Proyectos Especiales  
Teléfono: 944032300  
Correo electrónico:  
rlizundia@itelazpi.eus  
Dirección postal: Bizkaiko Teknologia  
Parkea, 101 Eraikina, 48170 Zamudio

### 5.- Responsabilidades.

Incurrirá en responsabilidad cualquiera de las

2025/05/22  
Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Ordinaria

xedatzen diren obligazioak betetzean arduragabeki edo erruz jokatu balu eta horrekin beste Aldeari kalterik eragingo balio, bere erantzukizuna izango litzateke. Beste Aldeak eraginda, kalte-galerak dituen Aldeak, kalte-galera horiengatik kalte-ordaina eskatu ahal izango du.

## **6.- HITZARMENAREN suntsiarazpena.**

Aldeek adostu dute HITZARMENA honako arrazoiengatik suntsiaraz daiteke:

- Bi Aldeetariko edozeinen borondateagatik, gutxienez hirurogei (60) eguneko aurretiazko epean idatziz jakinarazita.
- Bi Aldeetako edozeinen borondateagatik, adostutako obligazioen ez betetze larria behin eta berriz gertatzen bada, batez ere zerbitzu-mailari buruzko akordioak ez badira betetzen edo ez bada ordaintzen.

Nolanahi ere, bi Aldeetariko edozeinek HITZARMENA suntsiarazi baino lehen bete beharreko baldintza gisa, jakinarazi egin beharko dio besteari zer ez duen bete eta hori konpontzeko epe bat eman beharko dio. Epea agortutakoan, HITZARMENA suntsiaraz daiteke. Kasu horretan, betebeharretakoren bat ez betetzeak eragindako kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea sortuko dio beste Aldeari.

## **7.- Konfidentzialtasuna eta Datu Pertsonalak.**

Elkarri emandako edo ZERBITZUA eskaintzerakoan eskura daitekeen informazio eta dokumentazioari buruzko konfidentzialtasun osoa gordetzera behartuta daude bi Aldeak.

Aldeek, behar diren neurriak hartzeko konpromisoa hartzen dute, nola beren langileekiko hala HITZARMEN honekin zerikusia izan dezaketen hirugarrenekiko, klausula honetan adosten dena betetzen dela bermatzeko. HITZARMEN honen indarraldia bukatzen denean, ITELAZPIK, edozein euskarritan bildu eta edozein prozedura erabiliz kopiatu duen harreman honi buruzko informazio oro suntsituko du.

Bi Aldeek konpromisoa hartzen dute izaera

Partes que actúe de forma negligente o culposa en el cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente CONVENIO y ocasionare con ello un daño o perjuicio a la otra Parte. La Parte que tenga que afrontar cualquier tipo de daño o perjuicio en virtud de la actuación de la contraparte podrá reclamar la indemnización por dichos daños y perjuicios.

## **6.- Resolución del CONVENIO.**

Las Partes acuerdan que podrá resolverse el CONVENIO por las siguientes causas:

- Por voluntad de cualquiera de las Partes mediando preaviso por escrito con una antelación mínima de sesenta (60) días.
- Por voluntad de cualquiera de las Partes cuando medie incumplimiento grave y reiterado de las obligaciones pactadas, especialmente por el incumplimiento de los acuerdos de nivel de servicio o por falta de pago.

En cualquier caso, y como requisito previo a la resolución del CONVENIO por cualquiera de las Partes, se deberá notificar a la Parte incumplidora el incumplimiento y conceder un plazo para que subsane el mismo. Transcurrido dicho plazo se podrá resolver el CONVENIO. En su caso, el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones supondrá el nacimiento de un derecho de indemnización por los daños y perjuicios producidos.

## **7.- Confidencialidad y Datos Personales.**

Las Partes se obligan a guardar absoluta confidencialidad sobre la información y documentación que se faciliten mutuamente o tengan acceso durante la prestación del servicio.

Las Partes se comprometen a tomar las medidas necesarias, tanto respecto a sus empleados como a terceros que pudieran tener alguna relación con el presente CONVENIO, para asegurar el cumplimiento de lo acordado en esta cláusula. Una vez extinguido el presente CONVENIO, ITELAZPI destruirá toda información que sobre la presente relación haya almacenado en cualquier soporte o haya reproducido por cualquier procedimiento.

Ambas Partes se comprometen a guardar el más

personala duten eta HITZARMEN hau betez eskura ditzaketen datuekiko sekretu osoa gordeko dutela, eta 016/679 (EB) Erregelamenduan, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa indargabetzen dituen, jasotzen diren lege-aurreikuspen guztiak beteko dituztena.

Bereziki, ITELAZPIk tratatutako edo eskuratutako datu pertsonalak ez aplikatzeko edo erabiltzeko konpromisoa hartzen du, HITZARMEN honetan xedatzen ez den helbururen batekin, eta beste pertsona batzuei, informazioa gordetzeko bada ere, ez uzteko konpromisoa ere bai.

ITELAZPIk, Udalaren kontura erabiliko dituen datuei, Tratamenduaren arduradun gisa, 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) xedatzen diren segurtasun-neurriak ezarriko die, datu-moten arabera. Zerbitzua bukatzen denean, Udalari bueltatu beharko dizkio datuak honek emandako euskarri berebean eta ez du horien kopiarik gordeko. Aldeak bata bestearekiko erantzule izango dira obligazio hau ez betetzearen ondorioz sor daitezkeen kalte-galeren aurrean.

